

\* Txakurren gorozkiak biltzea jabeen ardura da: txakurrekin paseatzera irteten zarenean, eraman plastikozko poltsa bat eta gorozkiak biltzeko eta zakarrontzira botatzeko beste sistema bat. Izan ere, gorozkiak ez dira ongarrira; alderantziz, belarra erretzen dute. Bestalde, gorozkiak biltzea funtsezkoa da gaixotasun larri batzuk ez kutsatzeko, baita zikinkeriarik ez sortzeko eta gainerako herritarrei enbarazu ez egiteko ere. Horretarako, txakurrak hirian gehien ibiltzen diren lekuetan badira 62 zakarrontzi berezi.

\* Recoger las heces de tu perro es tu responsabilidad, cuando salgas a pasear con tu perro lleva una bolsa de plástico y otro sistema para recoger las heces y depositarlas en los contenedores de basura. Recuerda que las heces no son un fertilizante (muy al contrario queman el césped) Esta práctica es fundamental para prevenir el tránsito de algunas enfermedades importantes, además de para evitar la suciedad y molestar al resto de ciudadanos. Para este fin se disponen de 62 papeleras especiales en los puntos más solicitados de la ciudad.

Kontseptatu web orrian zigor-baremoa, Animaliak eta BAA (Balizko Animalia Arrisku-tsuak) Edukitzeko eta Gozatzeko U. O. ez betetzeagatik

Consulta en la web el baremo de sanciones por incumplimiento de la O.M. de Tenencia de Animales y A.P.P. (Animales Potencialmente Peligrosos)


<http://www.irun.org/micros/civismo/sanciones.asp>

**Informazio guztia**  
**Toda la información**

[www.irun.org/micros/civismo](http://www.irun.org/micros/civismo)



YO  
**iRESPETO!**  
**ERRESPETATZEN**  
DUT



**IRUN GIZALEGEZ / IRUN POR EL CIVISMO**  
**Irungoa naiz. Arduratsua naiz!**  
**Soy de Irun. ¡Soy responsable!**



## ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN TXAKURRAK

ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN TXAKURREN GAINEAN KONTZIENTZIATZEKO KANPAINAREN HELBURUA DA HORRELAKO TXAKURREN JABEEK ARAUDIA BETETZEA ETA ZIGORRIK EZ JASOTZEA EDO ARAUDIA EZ BETETZEAGATIK HIRUGARRENEI KALTE EZ ERAGITEA

- \* Txakurren jabeek jaten eta edaten eman beharko diete, eta osasun laguntza eman. Gainera, haien behar fisiologiko eta etologikoen araberako instalazioetan eduki beharko dituzte.
- \* Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak leku publikoetan ibiltzen eta kontrolatzen dituztenek soinean eraman beharko dituzte horrelako txakurrak edukitzeko lizentzia administratiboa badutela eta txakurrak Arriskutsuak izan daitezkeen Animalien Udal Erregistroan sartu dituztela egiaztatzeko dokumentuak.
- \* Arriskutsuak diren txakurrek beren tamaina eta arrazaren araberako **muturrekoa** eraman beharko dute, baita kate edo uhal gogor ez-luzagarri bat ere, bi metro baino laburragoa.
- \* Arriskutsuak diren txakurrak ezin dira aske ibili: **lotuta** egon behar dute beti.
- \* Pertsona bakoitzak arriskutsua izan daitezkeen txakur bakarria eraman dezake.
- \* Aldaketarik badago arriskutsuak izan daitezkeen txakurren datuetan (lapurte egin badute; galdu, hil edo eskualdatu egin bada; erasorik egin badu; etab.), Arriskutsuak izan daitezkeen Animalien Udal Erregistroan jakinarazi behar da, nahitaez.
- \* Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak eskualdatzeko, jabe berriak arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia izan beharko du.
- \* Lizentziak bost urteko indarraldia duenez gero, komeni da berritzea, jabeari txakurra atxiki ez diezaioten.
- \* Arriskutsuak izan daitezkeen txakurren jabeek erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatu behar dute, nahitaez.
- \* Honako hauek dira arriskutsuak izan daitezkeen arrazak:
  - \*Pit bull terrier
  - \*Staffordshire bull terrier
  - \*American staffordshire terrier
  - \*Rottweiler
  - \*Dogo argentinarra
  - \*Fila brasileiro
  - \*Tosa inu
  - \*Akita inu
  - \*Beren ezaugarriak kontuan hartuta (tamaina, masailuzurra, etab.) halakotzat hartzen direnak.



## PERROS POTENCIALMENTE PELIGROSOS

LA CAMPAÑA DE CONCIENCIACIÓN DE PERROS APP SE REALIZA PARA QUE LOS DUEÑOS DE PERROS POTENCIALMENTE PELIGROSOS CUMPLAN CON LA NORMATIVA Y EVITAR SER SANCIONADOS O SE CAUSEN DAÑOS A TERCEROS POR EL INCUMPLIMIENTO DE ESTA NORMATIVA

- \* El propietario de los perros deberá procurarle alimentación, bebida y asistencia sanitaria, así como unas instalaciones adecuadas a sus necesidades fisiológicas y etológicas.
- \* Las personas que conduzcan y controlen perros APP en lugares o espacios públicos, deberán llevar consigo los documentos acreditativos de la licencia administrativa para la tenencia de perros potencialmente peligrosos (APP) y de inscripción del animal en el Registro municipal de APPs.
- \* Se deben llevar a los perros APP con un **bozal** adecuado a su tamaño y raza, así como una cadena o correa resistente no extensible de menos de dos metros de longitud.
- \* No pueden circular sueltos, **siempre** deben ir atados.
- \* Solo se puede llevar un perro APP por persona.
- \* Es obligatorio comunicar al Registro Municipal de Perros Potencialmente Peligrosos cualquier variación respecto a los datos del APP (sustracción, pérdida, muerte, traspaso, agresión, etc.)
- \* El traspaso del APP requiere que la persona que lo adquiera tenga la licencia para la tenencia de APPs.
- \* Recordad que la licencia tiene una duración de 5 años y es recomendable renovarla para evitar así la retención de tu perro.
- \* Para el dueño de un perro APP es obligatorio contratar un seguro de responsabilidad civil.
- \* Las razas potencialmente peligrosas son las siguientes:
  - \*Pit Bull Terrier
  - \*Staffordshire Bull Terrier
  - \*American Staffordshire Terrier
  - \*Rottweiler
  - \*Dogo argentino
  - \*Fila Brasileiro
  - \*Tosa Inu
  - \*Akita Inu
  - \*De igual manera, aquellos perros que por sus características (tamaño, mandíbula, etc.) sean considerados como tales.